

gingaren balioa
 sarri baitzuben jan.
 Inork etzeion egiñ
 burla eta farra,
 berriro izan zuben
 mendira bearra;
 eta joanera artan
 ere arbola an,
 biliatu zuben, bañan
 nola neguba zan,
 arkitu zuben soilla
 lorerikan gabe;
 eta udan zeikena
 egin gingen jabe,
 ez ichogotiarren
 berriz udarari,
 aizkorazoak zizkan
 eman arbolari;
 eta ala botarik
 bere arbol ona,

berriro aberastu
 zan oso gizona:
 bañan lengo lepotik
 izanik buruba,
 ezkutatu zitzaion
 arbol eder ura;
 eta ala zeikena
 urtero dirutu,
 gelditu zan ez diru,
 ez arbol, ez frutu.

.

Onek erakusten du
 galgiroak artzen
 ditubena beitala
 modu artan jartzen;
 naigoko ditula ark
 urtean amabi
 bañan, beretzat izan
 egun berean bi.

ASTOA, CHERRIYA ETA BEREN JABEA

Gizonak astoa ta
 cherriya salzitzan,
 goiz batez feriyara
 biyakin asi zan;
 eta maiz cherriyari
 boteaz alea,
 zeramala geldika
 tripazai jalea,
 akabaturik bidez-

erdiyan zer janak,
 zestochoan zituben
 arto ale danak,
 cherriya joan nai ezik
 zitzaion gelditu,
 etzubela nai ankik
 aurrera mugitu;
 esanaz,—ezpazion
 ematen artorik,

etzubela emango
geiago pausorik.
—¿Ez? esan zion, ori
laster dek jakingo,
ik nai ez arren, geran
edo ez gu joango;
lagunak eztik bear
joateko artorik,
eta arto gabe joan
¿nai eztekala ik?—
Segiran astoaren
soka kokotetik,
lotu zion ta joaz
astoa atzetik,
asi zuben biyakin
joan era berriya,

eta alcha ta etzan
kurrinkaz cherriya,
azturikan arto len
eskatzen zubena,
ferira irichi zan
mazkaldurik dena.

.

Mañosocho direnak
lenaztik azitzen,
modu oetan dira
gero ikusitzen:
arbolak gaztetan zer
modutan dan jartzen,
gerora segi bide
ura du ekartzen.

RAMON ARTOLA.

